

KOSTU EGITURA

Enpresa guztiek kostuak dituzte, batzuk ezinbestekoak baina beste batzuk ez hain garrantzitsuak. Kostu ezberdin asko daude eta mota askotakoak, bakoitzak funtzio bat dauka

- **Kostu finkoak** enpresa baten jarduera-mailen aldaketa txikien aurrean sentikorrek ez diren kostuak dira, baina aldaketa horien aurrean aldatu gabe geratzen direnak.
- **Kostu aldagarriak** ekoizpen-bolumenaren aldaketen arabera aldatzen dena da, ondasunak zein zerbitzuak barne hartzen dituena.
- **Eskala-ekonomikoak** enpresa batek hedatzen dagoenean ekoizpen-gastuak murrizten dituen egoera da.
- **Hedapen-ekonomikoa** aldi bat hazkunde ekonomikoa positiboa eta nabarmen zero baino handiagoa den garaia da, atzeraldiaren eta geldialdi ekonomikoaren aldien aldean.



Gure enpresaren kostuak bi aldetan banatzen dira, finkoak eta aldagarriak. Kostu finkoak 3 partetan banatzen da, lokalaren alokairua, ura eta elektrizitatea, soldatak eta publizitatea dira. Aldagarriak berriz 2 partetan banatuta dago, erositako materiala eta UNICEF-i emandako %. Kostu hauek minimizatzea izango da gure helburuetako bat, honek mozkin maximizatzea eta irabazten dugun diruarekin enpresa garatzea ahalbidetuko digulako.



Enpresa sortu ahal izateko gure aurrezkiak erabiliko ditugu, baina ez da oso inbertsio handia izango eta espero dugu hilabete batzuk pasatzerakoan diru hori berreskuratu ahal izana. Inbertsio horrek ez du ezer berezia edukiko, lokalaren alokairua, materialen erosketa eta publizitatea pixka bat.